



Arartekoaren ebazpena, 2013ko abenduaren 9koa. Ebazpen honen bitartez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio etxebizitza batean esku hartzeko, haren osasungarritasunik eza dela eta.

Aurrekariak

- Pertsona batek erakunde honetara jo du, bere jabeen komunitatearen izenean, Diogenes sindromearen patologiarekin zendutako pertsona baten etxebizitza baten osasungarritasunik eta higienarik ezari buruzko egoera aurkezteko.

Auzokideak kexu dira etxebizitzaren geletan pilatutako zikinkeriak sorrarazten dituen trabak eta eragozpenak direla eta. Halaber, beren kezka azaltzen dute etxebizitza horretako ur eta elektrizitate instalazioen egoera kaxkarragatik.

Kexa agirian aipatzen dutenez, Bilboko Udalak jakinarazi die jabea dela etxebizitza garbitzeko eta mantentzeko zeregin horietaz arduratu behar dena. Hala eta guztiz ere, erreklamaziogileak adierazten du gaur-gaurkoz ezin dela zehaztu nor den zendutako pertsonaren oinordekoa.

Gauzak horrela, jabearen pasibotasuna ikusita, adierazten digute udal administrazio horrek betearaz ditzakeela jabeek higiene eta segurtasun baldintzen inguruan dituzten betebeharrak.

- Erreklamazioari dagokion izapidea emateko asmoz, Bilboko Udalera jo dugu, aipatutako etxebizitzaren segurtasun eta osasungarritasun baldintzak bermatzeko jarraitu diren udal jarduketei buruzko informazio eta argibideak bildu nahian.

2013ko azaroaren 21ean, Bilboko Udalaren informazioa jaso dugu; erantzunean gaiari buruzko argibideak eman dizkigute. Erantzuna Osasun eta Kontsumo Atalak igorri digu.

Jarduketa hori aurrera eraman zen jabeen komunitateak 2013ko abuztuaren 26an aurkeztutako idatzi baten ondorioz. Komunitateak bere idatzian adierazi zuen etxebizitza horretan pertsona bat hil dela honelako ezaugarriekin: *"en avanzado estado de descomposición y con Síndrome de Diógenes"*. Gorpua kentzeko poliziak esku hartu eta gero, etxebizitza hondakinez beterik geratu da. Hildakoak zuzeneko seniderik ez zeukanez gero, etxebizitzak duen zikinkeria ikusita, komunitateak eskatu du udalak premiaz eta presaz esku hartzeko eta etxebizitza garbitzeko. Salatutako eragozpenak kiratsek sortutakoak dira; gainera, auzokideen ustetan, etxebizitzaren osasungarritasun ezaren egoerak infekzioen fokua sorraraz dezake. Eskabideari erantzunez, Osasun eta Kontsumo Ataleko langileek etxebizitza bisitatu zuten. Etxebizitzaren kanpoaldeko



ikuskapenean (inork ez zuen etxebizitzaren atea ireki) ez da atzeman osasun publikoari arriskurik ekar diezaiokeen kanpoko zantzurik. Edozein kasutan ere, txostenak zehazten du garbiketa ez ezik zaintza bermatzeko bestelako jarduketak ere etxebizitzaren jabeari dagozkiola. Udalak bakar-bakarrik jarduten du ondasun pribatuetan agintaritzak judizialak beren-beregi eman beharreko agindu bitartez. Hori dela eta, 2013ko irailaren 13an, udalak, jabeen komunitateari txostenaren berri eman eta gero, espedientea amaitutzat eman eta artxibatu zuen.

Udal txostenak azaltzen du Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorraren 42.3.C artikulua eta Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko 8/1997 Legearen 15.1. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Azaldutako kasuan, Bilboko Udalak ondorioztatzen du, bisitaren ondoren, ez zuela antzeman osasungaitzasun publikorik zegoenik; horrenbestez, jarduketak artxibatzeke ebazpena hartu zuen.

- Informazio horren berri emanda, erreklamaziogileak berretsi du zaramaren pilaketak eragozpenak eta molestiak sorrarazten jarraitzen duela. Jabeen komunitateak egindako gestioak gorabehera, ezinezkoa izan da oinordetzaren ordezkariari agin-deia egitea. Horrela bada, berriro ere eskatzen du udalaren premiazko eta presazko esku-hartzea, betiere etxebizitzaren osasungarritasun baldintzei eusteko eta osasun publikoaren kontrako arriskuak saihesteko helburuarekin.

Aurrekari horiek ikusirik eta Bilboko Udalak igorritako informazioa kontuan harturik, egokitzen hartu dugu ebazpen hau prestatzea, hurrengo gogoetei jarraiki:

Gogoetak

- Erreklamazio honen xedea da udalak esku hartzeko daukan premia azaltzea, betiere etxebizitza partikular batek beharrezko osasungarritasun eta higiene baldintzak bete ditzan.

Auzokideek aipatu dute salatutako etxebizitza osasungarritasun baldintza kaxkarretan dagoela, poliziaren esku-hartzea eragin zuten gertakariak eta egindako argazkiek frogatu bezala. Zendutako pertsonak gauzak metatzeko trastornoa zeukan, ustel daitezkeen objektuak eta zaramak batzea eragiten duen Diogenes sindromea, hain zuzen ere.





Beste alde batetik, ezin exiji daiteke jabetzaren esku-hartzea, etxebizitzako titularrak hi delako eta oinordeko ezagunak ez dagoelako. Hori guztiori dela eta, agintaritzak eskudunaren esku-hartze subsidiarioa eskatzen da, zikinkeriak eta zikinkeria horren ondorioz eraikinean sor litezkeen infekzio fokuek sorrarazten dituzten eragozpenak saihesteko.

- Udalaren txostenak aipatu bezala, udalaren esku-hartzea bidera liteke eraikinen eta etxebizitzaren eta bizikidetzaren tokien osasun kontrolean dituen funtzioak betetzeko asmoz. Eskumen hori Ingurune Osasunaren Ikuskapenari buruzko 14/1986 Legeak eta Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko 8/1997 Legeak ematen diote.

Aintzakotzat hartu beharra dago erreklamazioak udalaren esku-hartzea planteatzen duela Toki Araubideko Oinarriari buruzko 7/1985 Legearen 25.2.H) artikulua osasungarritasun publikoa babesteko jasotzen duen eskumena egikaritzuz.

Osasun eta higiene ahalmen horien osagarri gisa, zehaztu beharra dago udalaren eskumen urbanistikoak dituztela jabeen higieztasun zaintzeko betebeharren betearazpena exijitzeko. Jabetzaren betebeharrak men egiten diete segurtasun eta apaindura baldintzei, bai eta osasungarritasun publikoari ere.

Ahalmen hori ematen da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. artikulua ezarritakoari jarraiki. Xedapen horrek, legearen 203.ari loturik, udal administrazioek beharrezko betearazpen aginduak emateko dituzten betebeharrak ezartzen ditu, betiere jabeek eraikinak eta lurzorua segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoaren baldintza egokietan zain ditzaten.

Betearazpen aginduek, legeria urbanistikoaren prozeduraren arabera ezarritakoek, izaera exekutiboa dute. Horiek justifikatu gabe betetzen ez badira, administrazioak beharrezko ahalmenak ditu, beteko direla bermatzeko neurriak har daitezkeen (betearazpen subsidiarioa, isun hertsatzaileak, eta abar), betiere Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 203. artikulua ezarritakoari jarraituz. Agindu hori betearazteko udalak etxebizitza batean sartu behar badu, beharrezko baimen judiziala eskatu behar izango dio administrazioarekiko auzien epaitegi eskudunari.

Kasu honetan, udal administrazioak betebeharra beteko dela bermatzeko eskumena dauka beharrezko espedientearen bitartez, behin txosten teknikoak eskatu eta betearazpen aginduak eman eta gero.



Ahalmen horien barruan, administrazioak jabetzari eskatu ahal izango dio, ofizioz edo interesdunen eskariz, eraikinaren gutxieneko osasungarritasunari eusteko beharrezko neurriak har ditzala. Neurriak proportzionalak izango dira eta, aldi berean, bat etorriko dira azken interes publiko horrekin. Kasu honi gagozkiolarik, etxebizitzan garbiketak eta desinfekzio zereginak egin litezke eta, horrela, berma liteke etxebizitzak segurtasun baldintza egokiak beteko dituela hirugarrenei arriskuak saihesteko.

- Izan ere, kasu honetan jabearen pasibotasuna ikusirik edo jabea ezin aurki daitekeela kontuan harturik, udalak modu subsidiarioan jarduteko aukera dauka, betearazpen agindua betearazte aldera.

Zentzu horretan, erreklamazioan azaldutako gertakariak eta etxebizitzan zaramen metaketak sorrarazitako egoera berezia direla eta, etxebizitzaren osasungarritasunik faltako egoeraren inguruan ohartarazi beharra dago.

Horregatik, behar-beharrezkoa da udal administrazioaren erantzun azkarra, etxebizitza ikuskatzeko. Etxebizitzaren barrualdea ikuskatzeko ezintasuna (jabearen absentsia dela eta) zuzendu behar da lege antolamenduak ezarritako bestelako frogak mekanismoa batzuen bitartez (salatzaileek aurkeztutako adierazpenak eta frogak, beste organismo batzuen txostenak, gizarte zerbitzuen informazioa...).

Nolanahi ere den, atzemandako ebidentziak kontuan harturik, beharrezko neurriak hartu behar izango dira osasungarritasun publikoaren betebeharrak beteko direla bermatzeko eta udal eskumenen gaineko betearazpen aginduak emateko.

- Azkenik, azaldutako kasuaz gain, komenigarria izan daiteke jarduketa protokolo bat ezartzea etxebizitzetan zaramen metaketa handia dagoen kasuetan, zaramen metaketa horiek zirkunstantzia pertsonalen ondorioz gerta baitaitezke, esate baterako Diogenes sindrome ezagunaren edo antzekoen ondorioz.

Kasu hauetan, udalaren esku-hartzea bideratzeko, udal zerbitzuen eta atal desberdinen arteko koordinazio egokia behar da (osasun publikoa, hirigintza, gizarte zerbitzuak...). Era berean, administrazioaren jarduketak arin konpondu behar ditu osasungarritasunik faltako egoera horiek, jabetzari darizkion betebeharrak eta eskubideak zehaztuz eta berme konstituzionalak babestuz.

Hori guztiori dela eta, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua manatutakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:





Gomendioa

Bilboko Udalari, beharrezko administrazio espedienteari jarrai diezaion, betiere aipatutako etxebizitzan beharrezkoak izan daitezkeen osasungarritasun neurriak zuzen eta eraginkortasunez beteko direla bermatu arte.

Gauzak horrela, ezarritako prozedurarekin eta jabetzari dagozkion prozedura bermeekin bat etorriz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 203. artikulua jasotako neurriak har ditzala, neurriok zuzen eta eraginkortasunez betez.

Jarduketa protokolo bat ezartzeko aukera balora dezala, betiere Diogenes sindromearen edo antzekoen ondorioz etxebizitzetan izan daitezkeen zarama pilaketa bereziei aurre egin ahal izateko.

